**ITZULPENA**[1]

| | |
|---|---|
| Araua: | EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1297/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, Europako Enpresa eta Merkataritzari buruzko Estatistikak Modernizatzeko Programari (MEETS programa) buruzkoa. |

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

1 Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : *«DECISIÓN No 1297/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 relativa al Programa para Modernizar las Estadísticas Empresariales y Comerciales Europeas (programa MEETS)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 340/76, 2008/12/19koa)*

# EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK ELKARREKIN HARTUTAKO ERABAKIAK

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1297/2008/EE ERABAKIA
**2008ko abenduaren 16koa**
**Europako Enpresa eta Merkataritzari buruzko Estatistikak Modernizatzeko Programari (MEETS programa) buruzkoa**

**(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua aztertu dute, bereziki haren 285. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute, Tratatuko 251. artikuluak ([1]) arautritako prozedura bete dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Batzordeak konpromisoa hartu du, batetik, arauak hobetzeko, eta bestetik, behar ez diren izapideak eta araudiak gutxitzeko. Bi komunikaziotan eman du Batzordeak konpromiso horren berri: bata, 2005eko martxoaren 16koa, “Hobeto arautzea, Europar Batasunean hazkundea eta enplegua indartu ahal izateko”; bestea, 2007ko urtarrilaren 24koa, Europar Batasunean karga administratiboa murrizteko jarduketa-programari buruzkoa.

(2) 2006ko azaroaren 14an, Batzordeak zenbait gairi buruzko komunikazio bat argitaratu zuen: erantzun-karga nola murriztu, Erkidegoko estatistikak nola sinplifikatu, eta haietan lehentasunak nola ezarri. Planteamendu estrategiko bat izatea proposatu zuen, enpresen karga estatistikoa murrizten jarraitu ahal izateko.

(3) Azken hamabost urteotan enpresen jarduerak deskribatzeko estatistika-araudi ugari azaldu dira. Horietan enpresak datuak ematera behartzen dira, Erkidegoak informazio estatistikoa eduki ahal izateko. Araudiak birmoldatu egin behar dira, bermatzeko, besteak beste, koherenteak direla haietan aipatzen diren aplikazio-eremuak, kontzeptuak, eta definizioak. Ahal den neurrian, araudi horien guztien bereizgarri izango da sinpleak izatea eta lehentasunak ezartzea.

(4) Enpresa eta merkataritzari buruzko estatistikek erronka handiak gainditu beharko dituzte datozen urteotan. Erkidegoko ekimen politikoak bultzatu ahal izateko, gai izan beharko dute agerian uzteko zer fenomeno gertatzen diren Erkidegoko ekonomia aldakorrean: hala nola, globalizazioa, enpresa-nortasunaren joera berriak, informazioaren gizartea, zerbitzuen salerosketa, berrikuntza, merkataritza-eredu berriak, eta lehiakortasuna. Izan ere, ezinbestekoa da Lisboako estrategia berria ikusita.

(5) Lisboako estrategia berriak Europako ekonomiaren lehiakortasuna sustatu eta hazkunde handia eta jasangarria lortzea ditu helburu, eta erabat baldintzatzen ditu enpresari eta merkataritzari buruzko estatistika-beharrak.

(6) Europa gero eta bateratuago dago hainbat alor ekonomikotan (besteak beste, Europako diru batasuna, eta Europako aduana sistema). Hori dela eta, beste behar estatistiko batzuk sortu dira: funtsezkoa da euroak nazioarteko transakzioetan duen rola aztertzea. Beraz, sistema estatistikoa egokitu egin behar da. Enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikek, batetik, behar bezala bete behar dituzte behar horiek, eta bestetik, dagokion epean, Europako ekonomian eta kasuan kasuko enpresa-sektorean gertatzen diren egiturazko aldaketei buruzko kalitate oneko datu estatistikoak eman behar dituzte.

(7) Enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak egiteko kontuan hartzen diren eremuetako batzuetan hobekuntzak egin behar dira, eta hainbat estatistika-mota sartu; besteak beste, enpresen egiturei buruzkoak; epe laburrerakoak; Prodcom estatistikak; informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzkoak; eta estatu kideen artean trukatzen diren merkantziei buruzkoak (Intrastat).

[1] Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko uztailaren 9koa (Aldizkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 18koa.

(8) Enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak egiten dituzten agintariek estatistikak egiteko metodoak birmoldatu behar dituzte, enpresen karga estatistikoa murrizteko eta erabateko eraginkortasunez erabili ahal izateko eskura ditugun iturri eta teknologia guztiak.

(9) Estatistikak egiteko sistema modernizatzen ahalegintzen ari dira, eta litekeena da horri esker beste adierazle-mota batzuk behar izatea orain. Jada eginda dauden enpresa-estatistikak lotuz lor daitezke adierazle berri horiek, eta, horrenbestez, beharrezko informazio hori. Horrela egiten bada ez da enpresen karga estatistikoa handituko. Iturri berriei eta sarrera elektronikoei esker, datu-bilketa ez da hain astuna izango beharbada, eta gainera, informazio gehiago lortu ahal izango da. Enpresa-estatistiken potentziala hobeto aprobetxatu behar da, eta kalitate hobea izan behar du estatistiketatik lortutako informazioak.

(10) Estatistikako institutu nazionalek estatistikak egiteko sistemaren modernizazioan murgildu behar dute. Izan ere, horrela kostuak ez dira bikoiztuko, eta ez dira alferrikako izapideak egin beharko.

(11) Intrastat sistema sinplifikatuz, bi helburu lortu nahi dira: bata, estatistika-betebeharrak murriztea; eta bestea, enpresei dakarkien karga txikitzea. Duela gutxi, estaldura-tasa murriztea erabaki zen, eta erabaki horrek aukera emango du aipatutako helburuak epe laburrean betetzeko. Epe luzeagora begira, beste bide batzuk aztertu behar dira sinplifikatze hori egiteko, fluxu bakarraren sistema, besteak beste. Epe luzera, sinplifikatzeko bide horiek gauzatzeko, bi alderdi hartu behar dira kontuan: batetik, bideragarritasun-azterketak; eta bestetik, Erabaki hau aplikatzeko egin behar diren ekintzak. Nolanahi ere, aintzat hartu behar da, bai zer-nolako kalitatea duten estatistikek, bai oso garestia dela beste sistema batzuetarako trantsizioa egitea.

(12) Finantzen kudeaketa egokiaren printzipioarekin bat, aldez aurretiko ebaluazioa egin dugu, Erabaki honetan ezarritako programa zentratzeko, programa eraginkorra izan dadin bere helburuak lortzeko, eta aurrekontu-murrizketa txertatzeko programaren sortze-unetik beretik.

(13) Erabaki honek finantza-zuzkidura jakin bat ezartzen du, programak irauten duen aldi osorako. Finantza-zuzkidura hori erreferentzia nagusia izango da aurrekontu-agintaritzarentzat urteko aurrekontu-prozeduraren esparruan, 2006ko maiatzaren 17ko erakundeen arteko Erabakiko 37. paragrafoaren arabera. Erabaki hori Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean hartu zuten, eta aurrekontu-diziplinari eta finantzak ongi kudeatzeari buruzkoa da ([1]).

(14) Erabakiaren helburua —alegia, Europako enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak modernizatzeko programa bat sortzea— ezin dute estatu kideek bere kasa behar bezala lortu; izan ere, koordinaziorik ez balego, ahaleginak bikoiztu egin beharko lirateke, akatsak errepikatuko lirateke, eta kostuak handiagoak izango lirateke. Estatistikak Europako eskalan egin behar direnez, helburua hobeto lor daiteke Erkidegoaren esparruan, eta, horrenbestez, Tratatuaren 5. artikuluan araututako subsidiariotasun-printzipioaren arabera, Erkidegoak horri buruzko neurriak har ditzake. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Erabaki honek ez ditu helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

(15) Kontseiluaren 89/382/EEE Erabakiak([2]) Programa Estatistikoaren Komite bat sortuko dela aurreikusten du; eta Erabaki horretako 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontsulta egin zaio Komite horri.

(16) Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamendua, 1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikari buruzkoa ([3]), erreferentziazko esparrua da Erabaki honetarako.

(17) Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren ([4])arabera onetsiko dira Erabaki hau ezartzeko neurriak. Erabaki hartan arautzen da zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

**Programa ezartzea**

---

[1] C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.
[2] L 181 EO, 1989.6.28koa, 47. or.
[3] L 52 EO, 1997.2.22koa, 1. or.
[4] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

1. Erabaki honek Europako enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak modernizatzeko programa bat ezartzen du (hemendik aurrera, “MEETS programa”).

2. 2009ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31 arte aplikatuko da MEETS programa.

*2. artikulua*

**Aplikazio-eremua eta helburu orokorrak**

1. MEETS programak ezarritako neurriak Erkidegoan enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak egin eta zabaltzekoak dira.

2. MEETS programaren helburu zehatzak honako hauek dira:

a) lehentasunak aztertzea, eta adierazle-multzoak sortzea beste eremu batzuetarako (1. helburua);

b) enpresen jarduerari buruzko estatistiken esparrua sinplifikatzea (2. helburua);

c) enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak era eraginkorragoan eginaraztea (3. helburua); eta

d) estatu kideen artean merkantziak trukatzeari buruzko datuak biltzeko sistema (hemendik aurrera, “Intrastat”) modernizatzea (4. helburua).

*3. artikulua*

**Ekintzak**

2. artikuluko 2. paragrafoko helburuak betetzeko, honako ekintza hauek egin beharko dira:

a) lehentasunak aztertzea, eta adierazle-multzoak sortzea beste eremu batzuetarako (1. helburua)

1.1 ekintza: Garrantzia txikia duten eremuak identifikatu;

1.2 ekintza: Eremu berriak sortu;

b) enpresen jarduerari buruzko estatistiken esparrua sinplifikatu (2. helburua)

2.1 ekintza:
Kontzeptuak eta metodoak txertatu esparru juridikoan;

2.2 ekintza: Enpresa-taldeei buruzko estatistikak egin;

2.3 ekintza: Europan inkestak egin, enpresen karga ahalik eta gehien murrizteko;

c) enpresari eta merkataritzari buruzko estatistikak era eraginkorragoan eginarazi (3. helburua)

3.1 ekintza: Hobeto aprobetxatu, batetik, sistema estatistikoko datuak, eta bestetik, balioespenak egiteko aukera;

3.2 ekintza: Hobeto aprobetxatu ekonomiari buruzko datuak;

3.3 ekintza: Tresnak sortu, datuak era eraginkorragoan lortzeko, transmititzeko eta tratatzeko;

d) Intrastat modernizatzea (4. helburua)

4.1 ekintza: Metodoak harmonizatu. Izan ere, Intrastat sinpleagoa bada, kalitatea hobetu ahal izango da;

4.2 ekintza: Hobeto aprobetxatu administrazio-datuak;

4.3 ekintza: Intrastaten barruan, datuak hobeto eta errazago trukatu.

Artikulu honetan aipatutako ekintzak zehatzago azaltzen dira eranskinean; eta haiei buruzko xehetasunak, 4. artikuluan aipatutako urteko lan-programetan.

*4. artikulua*

**Urteko lan-programak**

5. artikuluko 2. paragrafoak aipatutako prozedurari jarraituz, urteko lan-programak egingo dira, kontuan hartuta, batetik, 2. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren lehentasunak (helburu bakoitzerako ekintzei buruzkoak, alegia), eta bestetik, Erabaki honetan xedatutako aurrekontuetako diru-izendapenak.

*5. artikulua*

**Komitea**

1. Programa Estatistikoaren Komiteak Batzordeari lagunduko dio.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4 eta 7. artikuluak aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa betez.

1999/468/EE Erabakiko 4. artikuluko 3. paragrafoak adierazitako epea hiru hilekoa izango da.

*6. artikulua*

**1. ebaluazioa**

Aldizka, Batzordeak, estatu kideen laguntzaz, MEETS programaren esparruan egindako ekintzak ebaluatuko ditu. Horren bidez, batetik, jakin ahal izango da ea bete diren 2. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako helburuak, eta bestetik, zenbait ildo lortuko dira, etorkizuneko ekintzak eraginkorragoak izan daitezen. 2. 2010eko abenduaren 31 baino lehen, eta gerora, urtero 2013ra arte, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Bertan adieraziko du nola aplikatu den MEETS programa. 2014ko uztailaren 31 baino lehen, Batzordeak behin betiko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari; eta bertan adieraziko du nola aplikatu den MEETS programa. Txosten horretan ebaluatuko du zer onura ekarri dizkioten ekintzek, bai Erkidegoari, bai estatu kideei, bai eta informazio estatistikoa ematen eta erabiltzen duten pertsonei ere. Horren bidez identifikatu ahal izango da zer hobekuntza egin daitekeen.

*7. artikulua*

**Finantziazioa**

1. 2009-2013 bitartean MEETS programa gauzatzeko, 42.500.000 euroko finantza-zuzkidura emango da.

2. Aurrekontu Agintaritzak baimenduko ditu urteko kredituak; eta, horretarako, finantza-esparruaren mugak kontuan hartuko ditu.

*8. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogei egunera sartuko da indarrean.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*

*Lehendakaria*

H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean,*

*Lehendakaria*

B. LE MAIRE

*ANEXO*

**DESGLOSE DE LAS ACCIONES ENUMERADAS EN EL ARTÍCULO 3**

Objetivo 1: Revisar prioridades y desarrollar grupos de indicadores para nuevas áreas

Acción 1.1: Identificando áreas de menor importancia

— En un mundo cambiante, las necesidades estadísticas habrán de revisarse periódicamente, ya que no sólo surgen necesidades estadísticas nuevas, sino que otras pierden importancia y se convierten incluso en obsoletas. Por tanto, se llevarán a cabo revisiones periódicas de las prioridades, en estrecha cooperación con los Estados miembros, para señalar las áreas y las características que hayan perdido importancia y que, por consiguiente, puedan suprimirse de los requisitos legales. Tales revisiones simplificarán los requisitos en materia de estadísticas y reducirán la carga que supone satisfacerlos. La Comisión podrá promover la realización de estudios externos en este ámbito.

Acción 1.2: Desarrollando nuevas áreas

— En un entorno económico cambiante es importante definir prioridades para las estadísticas, como el comercio de servicios, la globalización y el espíritu empresarial, y ponerse de acuerdo sobre un grupo de indicadores a nivel comunitario para cada una de estas prioridades. Tales indicadores deben armonizarse en la medida de lo posible con las estadísticas internacionales.

— Las estadísticas deben compilarse de manera eficiente y ser comparables. Las estadísticas europeas, por lo tanto, se modernizarán aplicando estrictamente el principio de coherencia y comparabilidad de los datos para los períodos de que se trate. Se trabajará por consiguiente en el marco del Sistema Estadístico Europeo para lograr definiciones armonizadas de las características y los indicadores recientemente acordados.

— Después de acordar los grupos de indicadores y unas definiciones armonizadas, será necesario seguir desarrollando y probando formas de producir estadísticas en las áreas prioritarias.

— Para contribuir al desarrollo de nuevas áreas y del grupo de indicadores adoptado como objetivo, la Comisión promoverá estudios, organizará seminarios y prestará ayuda financiera para el desarrollo de métodos y formas de recogida de estadísticas.

Objetivo 2: Lograr un marco simplificado para las estadísticas relativas a la actividad empresarial

Acción 2.1: Integrando conceptos y métodos en el marco jurídico

— Las estadísticas europeas se compilan con arreglo a la legislación comunitaria, desarrollada a lo largo de los años. La remodelación de la legislación es necesaria para garantizar su coherencia. Por lo tanto, la Comisión podría promover la realización de estudios externos para revisar los actos jurídicos existentes, a fin de proporcionar un marco jurídico armonizado de las diversas áreas de estadísticas empresariales y comerciales.

— Las estadísticas tienen aspectos transversales. Por ejemplo, varias áreas estadísticas informan sobre el empleo, y en algunos casos describen el mismo fenómeno desde diversos ángulos. La Comisión promoverá, por lo tanto, la realización de estudios externos para armonizar las metodologías de las áreas estadísticas pertinentes. Se prestará ayuda financiera a los proyectos de los Estados miembros en este ámbito.

— Es importante garantizar la coherencia entre las áreas de las estadísticas empresariales y las de las comerciales. La coherencia puede referirse a la relación entre las estadísticas del comercio de mercancías y las estadísticas de la balanza de pagos, pero también a la relación entre las estadísticas estructurales de las empresas y las estadísticas comerciales. La Comisión promoverá la realización de estudios externos y se prestará ayuda financiera a los proyectos de los Estados miembros en este ámbito.

Acción 2.2: Desarrollando estadísticas sobre grupos de empresas

— La Comisión ha lanzado una iniciativa para crear un registro comunitario de grupos de empresas multinacionales. Este registro es una base fundamental para producir estadísticas armonizadas sobre la globalización de la economía. Las actividades que se realicen en el marco de esta acción se dedicarán a la realización de este registro. La Comisión promoverá la realización de estudios externos en este ámbito.

— Crear tal registro no es suficiente, por lo que se concederá una ayuda financiera para apoyar acciones de los Estados miembros dirigidas a desarrollar métodos más eficientes de recogida de datos de grupos de empresas y a ilustrar su importancia para el comercio internacional.

— En lo que respecta al registro comunitario de grupos de empresas multinacionales, las estadísticas europeas gozarán de una nueva perspectiva en la que adquirirán importancia las encuestas comunitarias específicas sobre grupos de empresas. La Comisión promoverá la realización de estudios externos y se prestará ayuda financiera a los proyectos de los Estados miembros en este ámbito.

Acción 2.3: Llevando a cabo encuestas europeas para reducir al mínimo la carga de las empresas

— Para destacar las necesidades nuevas y emergentes de la estadística comunitaria podrán llevarse a cabo encuestas comunitarias concretas sobre una base específica. Dichas encuestas se elaborarán a partir de estudios externos que promoverá la Comisión y con ayuda financiera a los Estados miembros.

— Para aprovechar el ahorro potencial de los sistemas de muestreo comunitarios en estadísticas periódicas, la Comisión promoverá la realización de estudios externos para identificar las áreas en las que bastarían los agregados comunitarios y para desarrollar nuevos métodos para recoger datos en esas áreas. También se prestará ayuda financiera para que los Estados miembros puedan ajustar sus sistemas de recogida de datos. Sin embargo, no hay ningún tipo normalizado de sistemas de muestreo comunitarios, por lo que dichos sistemas de muestreo deben adaptarse a las circunstancias.

Objetivo 3: Hacer que las estadísticas empresariales y comerciales se produzcan de una manera más eficiente

Acción 3.1: Aprovechando mejor los datos ya existentes en el sistema estadístico y la posibilidad de hacer estimaciones

— El objetivo final de esta acción es crear grupos de datos plenamente integrados para las estadísticas empresariales y comerciales a escala de los microdatos: un enfoque estadístico de «almacén de datos». Para lograrlo, se apoyará financieramente a los Estados miembros para poder enlazar grupos de datos o de microdatos de diversas áreas de las estadísticas empresariales y comerciales, como los registros comerciales y empresariales, enlazando también las estadísticas estructurales de las empresas con las estadísticas de investigación y desarrollo y las de la sociedad de la información.

— Se llevarán a cabo estudios metodológicos en nuevos procesos de trabajo para mejorar el uso de las actuales recogidas de datos; por ejemplo, evaluar el impacto de las tecnologías de la información y las comunicaciones (TIC) en los resultados empresariales gracias al enlace de datos de diversas fuentes.

— La manera más eficiente de recoger datos será la que reduzca más la carga para las empresas. Hay que garantizar que los institutos de estadística utilicen del modo más eficiente la información recogida. Por tanto, se prestará ayuda financiera a la realización de estudios metodológicos para una asignación óptima de tamaños de muestra y de su uso combinado con otras fuentes y métodos relacionados de estimación. Esta ayuda financiera puede también prestarse para estudios de calidad en caso de que algunas empresas (como las pequeñas y medianas empresas) estén excluidas de las encuestas estadísticas, y para el desarrollo de métodos apropiados y armonizados de estimación.

Acción 3.2: Aprovechando mejor los datos ya existentes de la economía

— A veces, una información estadística se recoge por partida doble. Una vez a efectos administrativos, por ejemplo fiscales, y luego con fines estadísticos, en las encuestas. Tal doble carga se evitará en la medida de lo posible. Así pues, el programa MEETS apoyará financieramente los proyectos para el uso de datos administrativos con fines estadísticos, incluidas las cuentas empresariales, ayudando a los Estados miembros a pasar de las encuestas estadísticas al uso de los datos administrativos y asegurando al mismo tiempo una alta calidad de los datos.

— Promover la integración de los planes contables y la información estadística en las empresas hará que puedan entregar los datos para las estadísticas de manera simplificada. La Comisión promoverá la realización de estudios externos y se prestará ayuda financiera a los proyectos de los Estados miembros en este ámbito.

Acción 3.3: Desarrollando herramientas para una extracción, transmisión y tratamiento más eficientes de los datos

— Las nuevas TIC ofrecen oportunidades para simplificar la información. Esto puede conseguirse utilizando las cuentas empresariales y otros informes financieros elaborados según las normas internacionales de contabilidad y las normas técnicas apropiadas para tales informes, como el XBRL (eXtensible Business Reporting Language). Se tomarán medidas para apoyar financieramente las acciones que faciliten la transferencia de los datos de empresas a las autoridades estadísticas nacionales.

— Debe apoyarse una utilización más eficiente de las herramientas de las TIC para facilitar el intercambio de información entre la Comisión y los Estados miembros. Además, deben seguir desarrollándose herramientas para la validación, la detección de errores, la corrección, el análisis y la edición. Se prestará ayuda financiera a los proyectos de los Estados miembros en este ámbito.

— Teniendo en cuenta los actuales progresos en la simplificación de los trámites aduaneros de exportación e importación, se apoyarán financieramente las acciones dirigidas a facilitar el intercambio, el tratamiento y la difusión de unas estadísticas comerciales de alta calidad y detalladas.

Objetivo 4: Modernizar Intrastat

Acción 4.1: Armonizando los métodos para mejorar la calidad gracias a un Intrastat simplificado

— Se apoyarán financieramente las acciones en los Estados miembros dirigidas a desarrollar herramientas y métodos para mejorar la calidad de los datos y el sistema de recogida de datos.

— Se apoyarán financieramente las acciones en los Estados miembros dirigidas a reducir asimetrías evitando clasificaciones erróneas y armonizando la estimación, y los sistemas de recogida y de tratamiento, las reglas para manejar datos confidenciales, los umbrales y los métodos de ajuste.

Acción 4.2: Aprovechando mejor los datos administrativos

— Debe fomentarse la reutilización de los datos administrativos transmitidos por las empresas para otros fines (sobre todo en los informes del impuesto sobre el valor añadido y en la contabilidad). Se prestará ayuda financiera a acciones en este ámbito, incluyendo el desarrollo de herramientas y procedimientos de las TIC.

Acción 4.3: Mejorando y facilitando el intercambio de datos dentro de Intrastat

— Es vital seguir desarrollando las herramientas y los métodos para el intercambio de datos en un sistema centralizado. Deben desarrollarse herramientas de validación, detección de errores, corrección, análisis y edición en el ámbito de las estadísticas del comercio intracomunitario. Se prestará ayuda financiera a las acciones centradas en los aspectos jurídicos y técnicos del intercambio de datos entre Estados miembros.